ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2026ko azaroak 27 · 1418 zenbakia

OTAR BETE JAI



eslaban
eslaban.com
T. 943 820 407

Igogailuak **Fatxadak** Teilatu berritzeak eta aldaketak
Erreformak Proiektuak **Konponketa bereziak**
Lantokientzako lan bereziak **Eraikinen mantentzea**

arat.
HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

Tradizioak ospatu.



Zure irribarrea zaindu.

@arat_klinika

Toribio Etxebarria, 4 Behea 20600 Eibar 943 201 851

www.aratklinika.com

Jarrai iezaguzu!



Urko mendiaren magalean dagoen Sosola baserrira jo dugu, Esther Guisasolaren eskutik mendeetako historia duen eraikina eta bertan jaiotako emakumearen ibilbidea ezagutzeko. Haurtzaroko oroitzapenez, euskararen aldeko lanaz, herriko hainbat egitasmoren sorreraz eta gaur egungo Sosolaz aritu gara berarekin. Horrez gain, bere bizipenak eta familiaren historia `Sosola. Beti hor egon den etxea´ liburuan biltzera zerk bultzatu duen ere kontatu digu.
Bideoa etakitto.eus-en dago ikusgai.

BIDEOAK YouTuben ikusgai

www.etakitto.eus

eta kitto! euskara elkartea

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
aldizkaria@etakitto.eus
ELKARTEAREN E-MAILAK
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Naia Aizpurua, Irati Alvarez, Ander Fernandez, Silbia Hernandez, Irune Jaio, Yanire Sagredo eta Oihane Zabala.,

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA
Ana Aizpurua
ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez
DISEINU ARLOA
Irune Jaio
JATORRIZKO DISEINUA
Maku Oruezabal
HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA
Ander Fernandez
TELEFONOA
943 20 67 76

AZALA
Irune Jaio
BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado
TIRADA
7.800 ale
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBAR Udala | Ayuntamiento

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

Eskutitzak

Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenwean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratwzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeko eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bwidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak

ELE

Hara, euskal mundu politikoak ere badu immigrazio masiboaren kontrako bere alderdia, ezkerrekoa gainera eta gai minbera horietaz euskaraz ari dena. Voxentzat edo Batzar Nazionalarentzat bozkatuko luketenak bildu nahi ditu mugaren bi aldeetan. Kanpotik heldu direnek, beren ohitura arrotzekin, euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna mehatxatzen omen dute. Ahantzi gabe, eta hori azpimarratzekoa da, woke joeren kontrako mugimendu gisa definitzen dutela beren burua, woke izatea zer den erran gabe.

Pena dut jendeak harremanetan jartzeko baliatzen den ele hitza akronimo xenofobo moduan plazaratuz, gaurko jendarteak premiazkoa ez duen bazterkeria areagotzen delako. Nola erabiliko dugu ele hitz hori hemendik aitzina? Pena dut halaber euskaldunontzat, denbora historikoetan zehar lur honetako hainbat populuk jasan izan dituelako euskal herritarron migrazio masiboen ondorioak: europarrok berdinki inposatu ditugu han eta hemen gure mintzairak, gure usantzak, gure ikusmolde politikoak.

Eta itoko gaituztelako ustea mito subjektibo bat baino ez balitz?

Itxaro Borda (BERRIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PUTZ-ERROSKILLA. ➜ Gozokia, erroskilla. Gaztelerazko ‘rosquilla’. “Mendaroko putz-erroskillak, erromerixetan saltzen ziran”.
Harroskoa, bere burua besteen gainetik daukana. Emakumeei buruz esaten da. “Bestelako putz-erroskillia jatzu bedori!”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 27
EGUNEZ | Elortza (Juan Gisasola,18)

ZAPATUA 28
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

DOMEKA 29
EGUNEZ | Mendinueta (Urkizu, 6)

ASTELEHENA 30
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

MARTITZENA 1
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUAZTENA 2
EGUNEZ | Zulueta (San Agustin, 5)

EGUENA 3
EGUNEZ | Castaño (J. Etxeberria, 7)

BARIXAKUA 4
EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (J. Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Xabier Zubizarreta Muguruza.** 2026-11-19.
- **Carmen Fernandez Conde.** 94 urte. 2026-11-19.
- **Milagros Arostegi Urizar.** 78 urte. 2026-11-21.
- **Melquiades Bercianos Pumarejo (Melki).** 78 urte. 2026-11-21.
- **Julio Teruel Luque.** 96 urte. 2026-11-22.
- **Maria Nieves Berasaluze Areitioaurtena.** 2026-11-24.
- **Jose Luis Recio Llorente.** 70 urte. 2026-11-25.



Eibarko Txirrindularien Elkarteak omenaldia egin dio Joxe Aranberriri

S.H. Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Txistorra Egunak jendetza bildu zuen aurreko zapatuan, eguraldi euritsu eta kaskarra izan arren. Eguneko unerik berezienetako bat Joxe Aranberri omentzeko ekitaldia izan zen. Horrela, elkartearen mendeurrenaren urtean, urte gehien daramatzan zuzendaritzako kideari egin zioten aitortza.

Jende ugari bildu zen karpan jardunaldi osoan zehar, eta amaieran zozketa egin zuten. Hauek dira zenbaki irabazleak: 551 (lehen sari nagusia); 1267, 67, 657, 368 eta 1060 (tarteko helmuga sariak); 163, 906, 1108, 1191, 991, 458, 1014, 1322, 706, 841, 218, 501, 1214, 1258, 136, 142, 1072, 1269, 943, 744, 584, 198, 671, 606, 1053, 236 (Sari Bereziak); 985 (56. Memorial Valenciaga); 1008 (IX. Eibarko Hiria Sari Nagusia); 539 (lehen erreserba); 104 (bigarren erreserba). Saridunek abenduaren 4ra jaso ahal izango dituzte opariak, Eibarko Txirrindulari Elkartearen bulegoan, Pagaegi kaleko 3. zenbakian, beheko solairuan. Horretarako ordutegia 19:00etatik 20:00etara izango da.

Eibarko Txirrindularien Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Eibarko Udalari, Oberena harategiari eta eguna antolatzen lagundu duten enpresa zein norbanako guztiei.

Ibarratik Misio Taldea GKEak azoka solidarioa egingo du zapatu goizean

S.H. Ibarratik Misio Taldea GKEak antolatzen duen azoka solidarioa egingo dute zapatuan (azaroak 28), 11:30etik 15:00era Helmet House-n (Coliseo antzoki aldamenean). Azokari esker biltzen den dirua GKE honek Indian eta Hondurasen martxan dauzkan lankidetza proiektuak finantzatzeko erabiliko da.

Irati Ayerza GKE-ko kidearen berbetan, "gauza polit ugari egongo dira, prezio ezin hobean: fularrak, bitxiak, kimonoak, artisautza, Ibarrako pipar famatuak, eta askoz gehiago. Aukera ezin hobea Gabonetako erosketak aurreratzeko, opari bereziak aurkitzeko eta, aldi berean, kausa on baten alde egiteko. Gainera, ohitura den moduan, hamaiketakoa ere egongo da".



BASERRIKO PRODUKTUAK
IBARKURUTZE
frutadenda
WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK
680 38 20 91 / 664 71 86 99

Gestilan asesoría
Zezenbide 4 - behea
Tel. 943 20 70 02
Faxa. 943 20 87 92
gestilan@gestilan.es
www.gestilan.es



Gorte Nagusietarako hauteskundeei Internet bidez egingo diegu jarraipena

S.H. Azaroaren 29an, domekan, Espainiako hauteskunde orokorrak egingo dira, Kongresuko eta Senatuko ordezkariak aukeratzeko eta, beste batzuetan bezala, Eibarko emaitzei jarraipena egingo diegu, baina horiek Internet bidez, www.etakitto.eus webgunean emango ditugu argitara, hauteskunde gauean bertan. Beraz, emaitzak auzorik auzo ikusteko, aurreko hauteskundeetako emaitzekin konparatzeko eta bestelako informazioa jasotzeko sartu gure webgunean, horiek guztiak eskuragarri izango dituzue eta.

Domekan egingo diren Gorte Nagusietarako hauteskundeetan, estatu osoan 38.728.356 herritar daude botoa ematera deituta; horietatik 1.820.645 Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dira, eta 21.694 Eibarren erroldatuta daude. Botoa emateko, hauteslekuak goizeko 9:00etan zabaldu eta 20:00etan itxiko dituzte.

Sara Abadek 'Belaunaldi Erreleboaren Aitorpena 2026' saria jaso du

S.H. Debabarreneko bi enpresarik aitortza bana jaso dute Ajebask Gipuzkoak antolatutako Enpresari Gaztearen Sarien bigarren edizioan. Sara Abad Cabok Rural Kutxa Belaunaldi Erreleboaren Aitorpena 2026 saria jaso du, Urkotronik enpresako gerente gisa egindako lanagatik. Asier Lizarralde Arrillagak, berriz, Ecoembes Enpresa Jasangarritasunaren Saria eskuratu du, Elgoibarko Lizagasar proiektuaren arduradun gisa. Sari-banaketa azaroaren 19an egin zuten, Donostian.



Xabi Zubizarreta Muguruza

2026/11/19

KORRIKA ZENERAMAN
BIHOTZ-BIHOTZEAN,
OINAK, BERRIZ, LURREAN
BERO ZEIN HOTZEAN.
INDARRA SENTITZEN ZEN
PAUSO BAKOITZEAN,
SAKONERA GOXOKO
MINGAIN ZORROTZEAN.
EIBAR EUSKALDUNA NAHI
ZENUEN MOTZEAN.
GUK JARRAITUKO DUGU
ZURE AMETSEAN.

– EIBARKO AEK –



Roberto Isasi Gisasola

6. URTEURRENA
2020/11/27

Gurekin beti
hemendik eta
izarretaraino

- ETXEKOAK -



Gabonetako Bigarren Eskuko Azoka antolatu du Udalak abenduaren 12rako



S.H. Eibarko Gabonetako Bigarren Eskuko Merkatuaren bigarren edizioa egingo dute abenduaren 12an, zapatua, Errebal Plazan, 10:00etatik 14:00etara. Salmentan parte hartu nahi duten herritarrek, elkarteek eta ikastetxeek abenduaren 10erako eman beharko dute izena, 943 670 249 telefono zenbakira deituta, edo www.merkabi.eus/eibar/eu/ helbidean dagoen formularioaren bidez. Bi aukera izango dituzte parte-hartzaileek: norberak kudeatutako salmenta-postua jartzea edo objektuak gordailu-zerbitzuaren bidez saltzea. Bigarren modalitatean, gehienez hamar objektu utzi ahal izango dira, azoka egunean bertan, 9:00etatik 10:00etara.

Azokaz gain, haurrentzako bi tailer egingo dituzte 11:30etik 14:00etara, material birziklatuekin Gabonetako apaingarriak egiteko. Txanda egunean bertan erreserbatu beharko da eta jarduerak doakoak izango dira.



1961eko kintoek ospakizun ederra egin dute

S.H. 1961ean jaiotako eibartarrek kinto-jaia ospatu zuten azaroaren 14an, lagunartean eta giro ederrean. Guztira, 88 lagun elkartu ziren urteurrena ospatzeko, eta Eibar hotelean bazkaldu zuten, elkarrekin une atseginak partekatuz eta aspaldiko oroitzapenak gogoratuz.

EtxeGi
ITURGINTZA
634 40 87 83
615 78 12 38
614 21 55 13
Pagaegi 1, erdisotoa
etxegi.iturgintza@gmail.com

XABALO 2024
F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA
Sananadresetan ZUEKIN



LUKENE PIÑEIRO ALBERDI

Estralurtarrak hezkuntza-sisteman

Zuzentasun osoz erretratatu zuen Nerea Ibarzabalek irakasle hasiberrion –eta ez hain berrien– errealitatea. Ezin hobeto jaso zuen bertsolariak gure lanbidearen parte diren kaosak eta etengabeko berrikuntzek eragiten dizkiguten ezinegona, urduritasuna eta nekea, eta burokraziaren inguruko aipamenari heldu nahiko nioke hurrengo lerroetan.

Askoren usteari jarraiki, irakasleon ibilbidea argia eta sinplea da: gradua ikasi, irakaskuntzarako guztiz prestatuko gaituen zubi birtuala gainditu, eta 25 neraberen aurrean jarri Platonen Haitzuloaren mitoa azaltzen, aurpegian galdera-ikur handi bat marraztuta dutela. Ordura arteko irakasle-bidean nekez gal daiteke bat; alabaina, gelan lur hartzen dugunean hasten da benetako zalantza-festa, nerabeen aurpegiekin match eginez.

Eskolatik pasa izanagatik bakarrik, denok bihurtzen gara bat-batean hezkuntzan aditu. Baina, pokemonen antzera, hezkuntza-sistema ere etengabe eboluzionatzen ari da –onera edo txarrera–, eta bestelako mundu bat dago Sailaren baitan. Bada, hezkuntzak bere jardun, arau eta hiztegi propioa ditu dagoeneko: HBN, HLBP, IDU, HPB, AGNH, IUP, AEN... Nobedade horien guztien aurrean gu, orojakileok, irakaskuntza-masterra amaitu eta sistemaren tripetan sartu bezain pronto, den-denak menperatzen ditugu, jakina. Izan ere, nork ez daki zer esan nahi duen letren konbinazio amaigabe horrek? Nork ez du ulertzen hezkuntza-pokemona premium mailara eboluzionatzeko beharrezko burokrazia? Tentelak gu!

Irakaskuntzan berria naizen heinean irakasleontzako Delfoseko orakulu bat egotea eskertuko nuke –eta urteak daramatzatenek ere eskertuko luketela uste dut–. Eusko Jaurlaritzaren egoitzan bertan kokatuko balitz ere, asko izango ginateke bertara joko genukeenak. Kontua da estralurtarren antzera sartzen garela irakaskuntzaren munduan eta, behintzat, estralurtarrek ez dute ezezagunaren aurrean disimulatu beharrik. Gu, ordea, irakasle-berri-orojakileok, jakinaren gainean egon behar dugu: irakasteko eta galderak erantzuteko gaude, galderak egitearen lana ikasleena baita. Ezinbestean, galdera-ikurra poltsikoan gorde eta Ideien munduaren azalpenarekin jarraitu behar dugu aurrera, telefonoaren beste aldean administrazioak jartzen digun igogailu-musikitarekin ez baititugu poltsikoak betetzen dizkiguten galderen erantzunak topatuko.

“Irakasle-bidean nekez gal daiteke bat; alabaina, gelan lur hartzen dugunean hasten da benetako zalantza-festa, nerabeen aurpegiekin match eginez”

Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Eguna

Argazki gehiago elkartearen webgunean:











SONRISALUD

CLÍNICA DENTAL AVANZADA

EIBAR

Toribio Etxebarría Kalea 23

943 231 414

www.sonrisalud.es

db» eta kitto!
DEBABARRENA KONTATZEKO GARAIA DA

ERRENTAGARRIAK, BAINA KALERA

Mallabiko Enerpac enpresak, lehen Larzep izandakoak, lantegia behin betiko ixteko eta 39 langile kaleratzeko asmoa iragarri du, emaitza ekonomiko onak izan arren. Erabakiak ezinegona eragin du langileen artean, eta negoziazioek aurrera egin ahala, bost greba-egun deitu dituzte lanpostuei eta industria-jarduerari eusteko.



Etekin ekonomiko bikainak izan eta fakturazio errekorrak lortu dituzten arren, egoera kezkagarrian utzi dute Mallabiko industria. Enerpac enpresak, lehen Larzep izandakoak, bere jarduera betirako eteteko eta 39 langile kaleratzeko asmoa iragarri du, zuzendaritzak aurkeztutako txosten tekniko baten bidez. Nahiz eta ekoizpen aldetik emaitza onak eta milioi bat euroko fakturazioa izan urrian, multinazionalak lantokia ixtea erabaki du. Langileentzat erabakia ulertezina da, batez ere enpresaren jarduera eta taldearen egoera ekonomikoa kontuan hartuta.

Larzep 1940an sortu zuten Eibarko bi familiak, eta urteen poderioz Mallabira mugitu zen hazkundeari erantzuteko. Presio handiko ekipamendu hidraulikoen fabrikazioan espezializatu zen, eta nazioarteko merkatuetan ere lekua egitea lortu zuen. Hain zuzen, 2015ean salmenten %80 baino gehiago atzerrian egiten zituen. Hamarkadetan zehar, eskualdeko industria-sarearen parte izan da, eta haren ibilbidea Eibar eta Mallabiko industria-garapenarekin lotuta egon da.

> **"Urrian milioi bat euroko fakturazioa izan arren, multinazionalak lantegia ixtea erabaki du"**

Duela hamarkada bat AEBko Enerpac multinazionalak erosi zuen. Hasiera batean, erosketa horrek modernizazioa eta inbertsio handiak ekarri zituen makineria berritzeko eta lana bultzatzeko. 2024an, gainera, Enerpac Spain SLk Larzep SA xurgatu zuen, eta enpresa multinazionalaren egituran erabat integratuta geratu zen. Hala ere, urriaren 26an enpresako presidentea bi abokaturekin agertu zen lantokian, jardueraren behin betiko etetea iragartzeko.

Erabakiak ezustean harrapatu zituen langileak. Izan ere, zuzendaritzaren iragarpenaren aurreko asteetan ekoizpen-erritmo onari eutsi ziotela azaldu dute, eta ez zutela lantegiaren etorkizuna arriskuan zegoela pentsatzeko arrazoirik. Egoera horrek areagotu egin du langileen kezka, ez baitute ulertzen jarduera ekonomikoari eusten dion lantegi bat ixteko beharra.

IRABAZIAK IZAN ARREN, ITXIERA

Zuzendaritzak emandako argudioen arabera, itxieraren atzean arrazoi produktiboak eta antolakuntzakoak daude, eta azpimarratu dute ez dagoela arazo ekonomikorik. Multinazionalak bere ekoizpen-egitura berrantolatu nahi du, eta argitaratutako informazioaren arabera, Mallabiko jarduera Herbehereetako eta Madrilgo beste instalazio batzuetara eramatea aurreikusten du. LAB sindikatuak deslokalizazio gisa salatu du erabakia, eta zalantzan jarri du langileak kaleratzeko beharra.

Izan ere, Mallabiko lantegia Enerpac Tool Group nazioarteko taldearen parte da. AEBetan egoitza duen multinazionalak industria-tresnak eta sistema hidraulikoak ekoizten ditu, eta munduko hainbat herrialdetan ditu instalazioak. Taldeak 2.300 langile



inguru zituen eta 22 herrialdetan presentzia zuen, azaroaren hasieran argitaratutako informazioaren arabera. Horrek ekoizpena hainbat lantokiren artean antolatzeko aukera ematen dio, eta, hain zuzen ere, horixe da langileen ordezkariek salatzen duten egoeraren gakoetako bat.

Gainera, enpresaren azken emaitza ekonomikoek ez dute galerarik erakusten talde osoaren mailan. Enerpac Tool Groupek 652,3 milioi dolarreko salmentak izan zituen 2026ko ekitaldi fiskalean, aurreko urtean baino %6 gehiago. Salmenten errekorra lortu zuen, eta 89,7 milioi dolarreko irabazi garbiak izan zituen. Datu horiek multinazionalaren egoera ekonomiko sendoa erakusten dute, nahiz eta berez Mallabiko lantegiaren errentagarritasuna zehazten ez duten.

Erabaki honen eta taldearen egoera ekonomikoaren arteko kontrastea are nabarmenagoa da, kontuan hartuta Mallabiko itxiera iragarri eta egun gutxira Enerpacek beste enpresa bat erosi zuela. Urriaren 28an, Texasen egoitza duen SFE Group taldearen erosketa gauzatu zuen, 472 milioi dolarreko operazio baten bidez. Horrela, multinazionalak bere nazioarteko negozioa zabaltzeko inbertsio handia egin zuen, Mallabiko jarduera eteteko asmoa iragartzen zuen bitartean.

Langileen ordezkarien iritziz, horrek agerian uzten du itxiera ez dela baliabide ekonomiko faltaren ondorio, multinazionalaren antolakuntza-erabaki baten emaitza baizik. Egun, Mallabiko enpresak 41 langile ditu, eta horietatik 39 kaleratzeko asmoa du zuzendaritzak. Beraz, erabakia gauzatuz gero, ia plantilla osoak galduko luke lanpostua.

NEGOZIAZIOAK, AURRERAPAUSORIK GABE

Negoziaziorako hilabeteko epea zabaldu da, eta orain arte hiru bilera egin dituzte zuzendaritzak eta langileen ordezkariek. Enpresak merkatuen azterketak eta kostuak zehatz-mehatz biltzen dituen txosten potolo bat helarazi die langileei. Ordezkarien arabera, agiriak ez du xehetasunik falta, baina egoera horren aurrean borroka egitea beste aukerarik ez zaie geratzen.

Itxiera saihesteko aukeren artean, lantegiaren jarduerari jarraipena emango liokeen inbertitzaile bat aurkitzea dago. Horretarako ahaleginak egin dituz-

ten arren, epe laburrean inbertitzaileak lortzea ia ezinezkoa dela onartu dute. Zuzendaritzak proposamen sendo bat aztertzeko prestutasuna adierazi du, baina ez du erosle berri bat aktiboki bilatzeko konpromisorik hartu. LABek, berriz, denbora gehiago eta erakunde publikoen inplikazioa eskatu ditu, industria-jarduerari eusteko alternatibak aztertu ahal izateko.

Enpresak kalte-ordainen inguruko proposamen bat ere mahai gainean jarri du, baina langileek baztertu egin dute, eskaintza "erabat ridikulua" delakoan. Haien lehentasuna, ordea, lanpostuei eustea eta lantegiaren itxiera saihestea da. Horregatik, negoziazioak kaleratzeen baldintzetara mugatu beharrean, jardueraren jarraipena bermatuko duten aukerak aztertzea nahi dute. Izan ere, akordiorik lortu ezean, hamarkada luzez eskualdeko industriaren parte izan den lantegiaren jarduera amaituko litzateke.

> **"Langileen lehentasuna lanpostuei eustea eta lantegiaren itxiera saihestea da"**

BOST GREBA-EGUN DEITU DITUZTE

Egoera honen aurrean, protesta egutegi gogorra adostu dute langileek. Greba egingo dute azaroaren 26an, 27an eta 30ean, baita abenduaren 1ean eta 2an ere. Data horiek negoziazio-epearen azken egunekin bat datoz, eta mobilizazioen bidez zuzendaritzari presio egitea dute helburu. Horrela, kaleratzeen aurkako jarrera agerian utzi eta enpresak hartutako erabakia berriz azter dezala eskatu nahi dute.

Negoziazioak egiteko epea abenduaren 4an amaituko da, eta akordiorik lortzen ez bada, bide judiziala aztertuko dute, nahiz eta salaketa bat jarriz gero epaiketara iristeko hilabete asko igaro daitezkeen. Horrek ziurgabetasuna areagotzen du langileen artean, lantegiaren etorkizunari buruzko erabakiak gero eta gertuago baitaude. Bitartean, langileek lanpostuen eta Mallabiko industria-jardueraren aldeko borrokan jarraituko dute, itxiera saihesteko aukerak agortu arte.



PLANA bi

Azaroak 26

IRAKUR.	**ETXE ARROTZ HAU** IRAKURKETA KLUBA	19:00	LIBURUTEGIA (DEBA)
IRAKUR.	**'EL ARTESANO'** LIBURU AURKEZPENA	19:00	KULTUR ETXEA (DEBA)
ZINEKLUB	**LOS NIÑOS ESTÁN BIEN**	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)

Azaroak 27

ANTZER.	**'JO!'**	20:30	ANTZOKIA (ERMUA)
BERTSO.	**... eta kitto! BERTSO JAIALDIA**	20:00	COLISEO (EIBAR)
IKUSEN.	**LOLAREN BIZIKLETA** LABURMETRAIA	19:00	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
AZOKA.	**LOCAL FRIDAY AZOKA!**	10:00	PLAZA ZAHARRA (SORALUZE)
ANTZER.	**CONTRA ANA**	20:00	ANTZOKIA (SORALUZE)
EKIMEN.	**FUTBOLIN TXAPELKETA** OSTIRALAK GAZTETXIAN	19:30	GAZTETXEA (MENDARO)
TAILER.	**MINDFULNESS** TAILERRA	12:00	IKIGAI (DEBA)
IPUIN.	**IPUIN KONTAKETA**	17:00	GAZTETXEA (DEBA)
UMORE.	**MARGOLARI** BAKARRIZKETA MANEX ASTIGARRAGA	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)

Azaroak 28

TAILER.	**HELDUENTZAKO OLERKI TAILERRA**	11:00	LIBURUTEGIA (ERMUA)
AZOKA	**AZKEN ZAPATUKO FERIA**	09:00	AITA AGIRRE sELGOIBAR)
JARDUN.	**ITSAS HONDAKINEN BILKETA**	09:00	HONDARTZA (DEBA)

Azaroak 29

ANTZER.	**AI NIRE JUANETEAK**	18:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)

Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

MARTA VALERA ECHALUCE
Fermin Calbeton 4, 3 D lokala
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70
abogada@martavalera.es

AHOLKULARIAK

GAURVE
Fermin Calbeton 13-15
Tel. 943 20 24 61
www.gaurve.com
consultores@gaurve.es

GESTILAN
Zezenbide 4
Tel. 943 20 70 02
www.gestilan.es
gestilan@gestilan.es

BITARTEKARITZA

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA
Fermin Calbeton 4, 3 esk.
Tel. 943 12 80 55
www.cristinabaz.com
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)



Neinor HOMES

ARRATE HOMES · EIBAR

Estreinatu zure
ETXEA OPARI BATEKIN

Zure etxebizitza erostearekin batera,
El Corte Ingleseko
3.000 €-ko * opari-txartela

*Kontsultatu legezko oinarriak. Promozio hau erosketa bermatzeko sailik ez baliatzea.

Etxebizitza berriak **EIBARREN**
Gourmet aretoa · Gimnasio homitua · Garajea · Trastelekua

Aprobetxatu ESKAINTZA MUGATU hau amaitu baino lehen

900 11 00 22 · **neinorhomes.com**



ANDER URKIA SAIZ

Kaletar izatetik basarri bat erostera!

Badator San Andres eguna, Eibarko kaliak basarrittar giroz beteko dittuan eguna. Egun benetan politta danondako. Kalekuak mendixan bizi garenok urtian zihar egitten dogun biharra ikusteko aukeria eukiko dabe, eta baserrittarrok gure animalixak eta barazkixak erakutsi eta saltzeko aukeria.

Sarri entzun izan dot basarrittik ezin leikiala bizi, lanik ez daguala, ez dirurik ezta etorkizunik be. Azken belaunaldixen bidia horixe izan da, kalera, industriara, zerbitzuetara, taillarretara etab. juatia. Baiña artaldian ardi-baltzak beti, ta baitta Eibarren be! Azken urtietan hainbat proiektu jarri dira martxan herrixan, behi eta txahalak, txarrixak, ardi-bildots eta gaztaiak, behor eta moxalak, barazki eta frutak, ogixa eta gozogintza, sagardaua... Norberak gustoko dakan leku eta lan bat eukitzia, hori bai aberatsa izatia!

Umetako ametsa, kaletar izatetik basarri bat erostera! 24 urtekin! Eta gaur 30ekin ortutik bizi izatera heldu naiz. Ez dago bide errazik dana sortzeko daguanian. Baiña gustoko tokixan aldaparik ez, eta Eibarren, aldapak, aldapak... mordua!

San Andres Azoka salmenta eguna be bada, gure diru-sarreren egun garrantzitsuenetakua. Nere kasuan parte hartuko doten lehen azokia izango da. Baiña urtian zihar astero (astelehen eta eguen arratsaldetan) banaketa bidez otar pertsonalizatuak saltzen dittut, sasoian sasoiko barazki freskoz betetakuak! Zuzenian ortutik sukaldera!

Herriko eta baillarako ekoizliok, gure produktuak herritarreri hurreratu nahixan, Urtaro Azoka prestatzen dihardugu, urtaro bakotxian azoka bat antolatuz Errebalen! Laster izango dozue honen barri gehixago.

Eibartar guztiak animatu nahi zaittuet herriko ekoizlieri euren okela, fruta, goxo, ogi, gaztai, barazki eta sagardaua erostera, Eibarko inguruniak bizirik segidu deixan urte askuan!

“Norberak gustoko dakan leku eta lan bat eukitzia, hori bai aberatsa izatia!”



FISIOTERAPIA
ZENTRUA
Ane Mendia
970 kol. zkia.







INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TENPORO-MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASEAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642
ane_mendia@hotmail.com

Tradizioa eta jai giroa, San Andresen bueltan

Bertsolaritza, musika, gastronomia eta herri kirolak izango dira datozen egunetako egitarauaren ardatz. San Andres eguna azaroaren 30ean ospatuko dugu, urteroko nekazaritza azokarekin eta beste hainbat ekitaldirekin.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Azaroaren azken egunek berezko lekua dute Eibarko jai-egutegian. San Andres egunaren inguruan antolatutako ospakizunek gastronomia, kultura eta herriko ohiturak uztartzen dituzte, eta aurten ere egitarau zabala prestatu dute. Dagoeneko egin dituzte lehen hitzorduak: azaroaren 14an, Eskolarteko Bakailao Lehiaketa; hilaren 21ean, Txistorra Eguna; eta 22an, XXXII. Bakailao Txapelketa, San Andres Saria. Orain, asteburuko hitzorduen eta hilaren 30eko ospakizun nagusiaren txanda izango da.

Gaur, azaroaren 27an, XXXII. San Andres Bertso Jaialdia egingo dute Coliseo antzokian, 20:00etan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako saioan, Aner Peritz, Irune Basagoiti, Xabat Illarregi, Aitor Etxebarriazarraga eta Andoni Egaña ariko dira bertsotan, Jon Mikel Mujikak jarritako gaiei erantzunez. Hogeita hamabigarren aldia izango du jaialdiak. Sarrerak zortzi euroan eskuratu ahal izango dira, saioa hasi aurretik, Coliseoko leihatilan.

Bihar, hilaren 28an, prebentziorako eta informaziorako guneak jarriko dituzte Untzaga plazan, 23:30etik 02:00etara. Ai Laket! elkarteak substantzien testinga eskainiko du; Garaiak taldeak aisialdiari eta substantzien kontsumoari buruzko informazioa emango du; eta Sexubizi jaietako prebentzio programak ere bere gunea izango du.

Domekan, hilaren 29an, musika izango da protagonista. Ahantzi erromeria taldeak erromeria eskainiko du 19:00etatik 22:00etara, eta



Ustekabe txarangak 20:00etatik 22:00etara joko du. Sexubizi programak ere bere gunea izango du, 20:00etatik 23:00etara.

PUBLI RESA
osagarrien pertsonalizazioa
merchandising
serigrafia
lanerako erropa
www.publiresa.com
943 701 497 / 687 879 667
Armagin 3-5 beheak
publiresa@publiresa.com

LEGE AHOLKULARITZA / AUDITORIA
Gaurve
Tfnoa. 943 202 461
Faxa. 943 201 125
Fermin Calbeton, 13-15
www.gaurve.es

Azaroaren 30ean, nekazaritza azoka
Astelehenean ospatuko dugu San Andres eguna, eta urteroko nekazaritza azokak hartuko du goizeko protagonismoa. XLVII. edizioa izango du aurten, eta Untzaga plazan eta Txaltxa Zelaian egingo dute. Azokako epaimahaiak 09:30ean ekingo dio lanari.

Goizean zehar, beste hainbat hitzordu izango dira. 11:30ean, Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du. Eguerdian, bi ekitaldi izango dira aldi berean: Errebal plazan, San Andres Aizkolarien Txapelketaren XXII. edizioa jokatuko dute; Untzaga plazan, berriz, bertsolariak, trikitilariak eta kalejira izango dira.

Dantzak ere izango du bere tartea. 12:30ean, Kezka Dantza Taldeak Plazara Dantzara erromeria eskainiko du, Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin batera. Eguerdiko ekitaldiei amaiera emateko, 13:15ean banatuko dituzte San Andres azokako, pintxo lehiaketako eta kartel lehiaketako sariak.



San Andres eguneko erromeria, iaz. EIBARKO UDALA

13:15ean banatuko dituzte San Andres azokako, pintxo lehiaketako eta kartel lehiaketako sariak

San Andresetako kartel-lehiaketa
Aurten, honako hauek izan dira San Andres jaien kartel-lehiaketako irabazleak: helduen kategorian, Ernesto Etxabe Aranzibia, 'Farola' lanarekin; 11 eta 14 urte artekoen kategorian, Ane Plazaola, 'Oilarra azokan' kartelarekin; eta hamar urtera artekoen kategorian, Milena Alberdi Rodriguez, 'Txerria gazta jaten' lanarekin. Guztira, 162 lan aurkeztu dituzte lehiaketara.:92 helduen kategorian, 28 gazteen kategorian eta 42 haurren kategorian.





Sortzaileen azoka eta kontzertuak, zapatuan

Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak egun osoko egitaraua prestatu du azaroaren 28rako. Gure Eskuk, berriz, Euskal Kantu Poteoa egingo du eguerdian, Casinotik abiatuta.



San Andres jaien harira, herriko bi eragilek ere bat egingo dute zapatutako ospakizunekin. Jaixak Herrixak Herrixandako jai batzordeak sortzaileak eta musika izango ditu ardatz egun osoko egitarauan; Gure Eskuk, berriz, euskal kantuen inguruan elkartzeko gonbita egin die herritarrei.

Jaixak Herrixak Herrixandako (JHH) jai batzordearen egitarauko lehen hitzordua Sortzaileen Azoka izango da. 12:00etan hasiko da, Untzaga plazan, eta Eibarko hainbat sortzaile eta artisauk hartuko dute parte. Azokaren hasieran, Marasmia talde feministak antolatutako Marianitada ere egingo dute.

Arratsaldean, musika izango da protagonista. 19:30ean, Latuna Bando txarangak girotuko ditu kaleak, eta ondoren Alarma Morea eta Aingura taldeen kontzertuak izango dira. Alarma Morea 2019an Zumarragan (Gipuzkoa) sortutako emakumez osatutako taldea da. Rumba flamenkoa dute musika-estilo nagusi, baina beste doinu batzuk ere uztartzen dituzte. Emakumeen ahalduntzea eta euskararen erabilera dira taldearen bi ardatz nagusiak. Aingura taldeak, berriz, punk-rock eta punk-oi doinuak ekarriko ditu Eibarrera. Nafarroa Garaiko hainbat herritako bost musikarik osatzen dute taldea. Kontzertuen ostean, txosnetako musikarekin jarraituko dute karpan, goizaldeko 04:00ak arte.

Gure Eskuk ere bat egingo du zapatuetako ospakizunekin, Euskal Kantu Poteoa antolatuta

Euskal kantuen bueltan elkartzeko

Gure Eskuk ere bat egingo du zapatuko ospakizunekin, Euskal Kantu Poteoa antolatuta. 12:00etan abiatuko dira Casinotik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira, euskal kantutegiko abestiak elkarrekin abestuz.

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta, 20
Espezialistak plater prestatu eta haragi bikainetar
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
@Oberenaharategia
OBERENA HARATEGIA


Goiko luz
Ospatu,
bizi,
gozatu
SANANDRESAK
Otaola hiribidea 13
www.goikoluziluminacion.com
943 20 08 83


PUB
CAFE
GOSARIAK,
PINTXOAK,
TARDEOAK,
PARRANDAK,
Kaskor
DUTE IZENA
Calbeton, 6 | 943 20 85 86
Gora Sanandresak!

Beti hor egon den etxetik, mundura

Esther Guisasolak bizitza oso bateko oroitzapenak bildu ditu `Sosola. Beti hor egon den etxea´ liburuan. Urkoren magalean jaio eta hazitako emakumearen historia da, baina baita Eibarko euskararen, hezkuntzaren eta herrigintzaren historiaren zati bat ere. Sosolako ateak ireki dizkigu, iraganaz, bizitakoaz eta ondorengoei utzi nahi dien ondareaz hitz egiteko.

Testua NAIA AIZPURUA GARRO
Bideoa YANIRE SAGREDO



Sosola baserria barrutik. NAIA AIZPURUA

"Ortuko gauzak gustatzen zaizkit, baina nire etorkizuna ez zegoen ortuan". Esther Guisasolaren hitzek ondo laburbiltzen dute bere ibilbidea. Eibarko Sosola baserrian jaio eta hazi zen, baina txikitatik izan zuen argi bere etorkizuna ez zela baserriko lanetara mugatuko. Medikua izan nahi zuen, ikasi eta mundua ezagutu. Hasierako asmo guztiak bete ez bazituen ere, horietako asko asetu ditu.

84 urte bete berri dituela, bere bizipenak, familiaren oroitzapenak eta Sosolaren historia liburu batean bildu ditu, besteak beste, ilobei amamaren bizitzaren lekukotza uzteko. Oroitzapen pertsonaletatik abiatuta, belaunaldi baten bizimodua eta Eibarko historiaren hainbat pasarte ere jaso ditu.

Sosolan hartu gaitu, bere bizitzako agertoki nagusian. Mendeetako historia gordetzen du baserriak, eta Estherrek ere badu zer kontatu: ikasketak, euskara, herriko egitasmoak eta bidean ezagututako pertsonak.

Mendeetako historia duen baserria

Urko mendiaren magalean dago Sosola, Eibarko haranari begira. Gaur egun baserri gisa ezagutzen dugun eraikinak bestelako egin-



Sosola baserria kanpo aldetik. NAIA AIZPURUA

kizunak ere izan ditu. Haren horma sendoek eta gezileihoek iragan urrun baten aztarnak gordetzen dituzte.

Gariak garrantzi handia izan zuen Sosolan. Estherrek gogoratzen du nola gari-soroak ia etxeraino heltzen ziren. Sagarrak ere ezinbestekoak ziren: garai hartan, ura edan beharrean sagardoa edanda gaixotasunak saihesten zituztela uste zuten. Horregatik, tolarea ere bazegoen baserrian.

Liburuan familiaren oroitzapenak dokumentazio historikoarekin uztartu ditu, Sosolaren bilakaera eta bertan bizi izandako belaunaldien nondik norakoak jasotzeko.

1942ko azaroan jaio zen Esther bertan. Frankismo garaiko haurtzaroa izan zuen, eta orduko eskola-giroa gogoan du. Nesken gelan ikasten zuen, diziplina zorrotzaren menpe. "Jolastokira irteten ginenean ere formatu egiten ginen eta Cara al Sol kantatu behar izaten genuen", kontatu digu.

Haurtzaro hartan hasi zen bere etorkizuna beste modu batera irudikatzen. Baserria maite zuen, baina bazekien beste zerbait egin nahi zuela. Ikasteko gogo horrek bere ibilbide osoan lagundu dio.

"Nire aitak esaten zuen: Sosola moduko etxerik ez dago. Eta neuk ere hala uste dut"

Ikasteko gogotik, herrigintzarako konpromisoa

Medikuntza ikastea zuen amets, eta osasun-arloan lan egitera iritsi zen. Semeak jaio ondoren, ordea, euskarazko hezkuntzarekin egin zuen topo, frankismoaren azken urteetan. Semeetako bat Eibarko San Andres elizako beheko geletan antolatzen ziren euskarazko eskoletara eramaten zuen, eta bertan laguntza eskatu zioten: "Zu hemen behar zaitugu".

Horrela hasi zen irakaskuntzan. Familiako ardurak eta ikasketak uztartuz, batxilergoa osatu, unibertsitaterako sarbidea gainditu eta Magisteritza ikasi zuen Bergaran. Gerora, Eibarko Mogel ikastolaren proiektuan ere parte hartu zuen.

Baina Estherren jarduna ez zen hezkuntzara mugatu. Eroskiren sorrerarekin lotutako egitasmoetan, baserritarren antolakuntzan



BIDEOA

eta euskararen aldeko ekimenetan ere aritu zen. Horien artean dago irakurtzen ari zaren ...eta kitto! hedabidearen sorrera. Fernando Muniozguren eta beste hainbat lagunekin batera, Eibarren euskarazko komunikabide bat sortzeko lanean jardun zuen.

Muniozgurenen ekarpena bereziki gogoratzen du: "Bera zen burua, arima". Haren lana behar bezala aitortu ez izanak kezkatzen du oraindik.

Herrigintzarekiko lotura hori Andirao baserritarren elkartearen sorreran ere islatu zen. Gaur egun martxan jarraitzen duen elkarteak Eibarko landa-eremuko bizilagunen beharrei erantzutea izan du helburu.

Sosolako ateak zabalik

Estherren bizitzak Sosolatik kanpo bide luzea egin badu ere, baserriak bere egunerokoaren parte izaten jarraitzen du. Gaur egun landetxea kudeatzen du, eta bisitariei harrera egitearekin batera, eraikinaren historia ezagutarazten die. Izan ere, mendeetako historia duen baserriak bizirik jarraitzen du, garai berrietara egokituta.

Baserriak ez dio nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin duen loturari uko egin. Bi behi dituzte, eta haien esnearekin gurina egiten dute. Bestalde, Enrike semeak eta Aizpea haren emazteak ogia, pastak eta bestelako produktuak prestatzen dituzte, osagai naturalekin. Ekoizteko modu horri garrantzi handia ematen diote, eta Esther harro dago egiten duten lanarekin. "Hau irla bat da. Ez diogu ezeri ezer botatzen, inolako produkturik, bakarrik naturala dena", azaldu du.

San Andres azokan ere ez dute hutsik egingo aurten. Urtero bezala, Sosolan egindako produktuak eramango dituzte, eta hitzordu berezia izango da familiarentzat. Urte luzez parte hartu dute azokan, eta hainbat sari ere jaso dituzte bertan. Eibarko baserritarren eta herritarren arteko topagune izateaz gain, Sosolan egiten duten lana ezagutarazteko aukera ere bada haientzat.

Bizitakoa ondorengoei uzteko

`Sosola. Beti hor egon den etxea´ ez da baserri baten historia hutsa, ezta Estherren ibilbide profesionalaren kronika soil bat ere. Oroitzapen pertsonalak, familiaren historia eta garai desberdinetako bizimoduak biltzen dituen kontakizuna da.

"Neure ilobei lagatzeko zeozer amamaren bizitzakoa". Hitz gutxitan azaldu du Estherrek liburua idazteko arrazoia. Bizitakoak ez galtzea nahi du, ondorengoek jakin dezaten nondik datozen eta aurreko belaunaldiek zer-nolako bizimodua izan zuten.

Estherren esperientzien bidez, Eibarko iraganaren zati bat ere agertzen da: baserriko bizimodua, frankismo garaiko hezkuntza, euskararen aldeko lana eta herriko hainbat egitasmoren sorrera.

Sosolak mendeak daramatza Urkoren magalean, belaunaldiak joaten eta etortzen ikusten. Estherrek, berriz, etxe hartatik abiatu eta askotariko bideak egin ditu, sustraiekin lotura galdu gabe. Orain, bizitakoaren zati bat paperean utzi du, hurrengo belaunaldiek beren kabuz ezagutu dezaten.

Baserriko ateek zabalik jarraitzen dute. Eta barruan, oraindik kontatu gabeko istorio ugari aurkitu daitezke.


Ipurua
gure
kontu
LEHIAKETA
TUNEL
ESPERIENTZIA
Zatoz Errebal kaleko 5. zenbakiko gure dendara
Jaso azken nobedadeen berri, hartu parte gure lehiaketan, eta irabazi VIP esperientzia bat Eibar taldearen Ipuruko jardunaldi baterako.
2 VIP sarrera
Tunel Esperientzia
Cateringa
Errebal kaleko 5ean bakarrik
943 57 43 96
AL-OR.: 10:00-13:30, 16:30-20:00
LR.: 10:00-13:30
euskaltel
Informazio gehiago eta lehiaketaren oinarriak, Eibarko Euskaltelen dendan (Errebal kalea, 5). Lehiaketa 18 urtetik gorakoentzat da. Lehiaketako txartel bat pertsonako. Irabazleari telefonoz jakinaraziko diogu. Zorte on!


61. urteurrena
GORA SAN ANDRES!
federópticos
Igmar



Kalejiraren amaieran "Ixotu euskeria" koreografia egingo da harmailetan. SILBIA HERNANDEZ

Kantuz eta argiz beteko dugu aurten Euskararen Eguna

Abenduaren 3an, eguena, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta Eibarren ere kaleak euskaraz, musikaz eta giro onez betetzeko hitzordua izango dugu. Eibarko Euskalgintzak antolatuta, aurten kantu-kalejirak hartuko du protagonismo berezia. Ustekabe txarangaren laguntzarekin, herriko kaleak zeharkatuko ditugu, bost geldialdi eginez eta bakoitzean kantu bana abestuz. Euskaraz kantatzeko, elkarrekin gozatzeko eta herriko kaleetan euskararen presentzia eta bizitasuna erakusteko aukera izango da.

Testua **MAIDER ARANBERRI SARASUA**

18:00etan Urkizutik hasita Untzagaraino ailegatuko da kantu-kalejira Ustekabe txarangaren laguntzarekin. Ibilbidean bost geldiune egingo ditu eta horietako bakoitzean kantu bat abestuko da. Untzagan, harmailen aldean, "Ixotu euskeria" argi-koreografiarekin amaituko da ekitaldia 19:00ak bueltan.

Eibarko Euskalgintza osatzen duten taldeek eibartar euskaltzale guztiak gonbidatu nahi dituzte ekimenarekin bat egitera: "Kantu-kalejira ez da abesteko aitzakia hutsa; kalera ateratzeko, elkartzeko eta euskararen inguruan komunitatea egiteko aukera ere bada. Ez dugu aparteko ahotsik edo kanturako trebetasunik behar. Kontua ez da ondo edo gaizki abestea, elkarrekin abestea baizik. Ustekabe Txarangaren doinuek lagunduta, ahots guztiak izango dira ongietorriak, eta zenbat eta gehiago elkartu, orduan eta indar handiagoa izango du kalejirak". Gainera, antolatzaileek, bost abestien letrak biltzen dituzten esku-orriak banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.

GELDIUNEAK ETA KANTUAK:

18:00 Urkizu:
"Arratsalde honetan"
Errebal:
"Euritan dantzan"
Anbulatorioa:
"Itzulera"
Depor parean:
"Ikusi mendizaleak"
19:00 Untzagan:
"Guk euskaraz"

Euskara, eguneroko hizkuntza

Euskararen Eguna ospatzea garrantzitsua da, baina ospakizunaren atzean dagoen mezua ere ezin dugu ahaztu. "Euskara gure eguneroko hizkuntza izatea nahi badugu, ezinbestekoa da erabiltzeko aukerak sortzea, kalean entzutea, lagunartean partekatzea eta ahalik eta esparru gehienetan presente egotea. Hizkuntza ez da berez bizirik mantentzen: hiztunak behar ditu, erabilera behar du, eta guztion konpromisoa behar du. Horrelako ekimenek, gainera, euskararen inguruan elkartzeko eta elkar ezagutzeko aukera ematen dute, adin eta ohitura desberdinetako herritarrak helburu beraren inguruan bilduz", diote Euskalgintzatik.

Horregatik, egun honek badu ospakizunetik haragoko esanahia: "Euskararen aldeko lana urte osokoa da, eta eguneroko keinu txikiek egiten dute posible hizkuntzak aurrera egitea. Hala ere, urtean behin kalera atera eta denon artean ospatzeak indarra ematen dio bide horri".

Ekitaldi amaieran egingo den argi-koreografiarako herritarrei etxetik argia ekartzeko eskaera egin du euskalgintzak: "Linternak, frontalak edo eskura duten beste edozein argi. Denon artean argiztatuko dugu une hori, ixotu egingo dugu euskara. Guztiona delako eta guztion artean egiten dugulako indartsuago".

Euskararen eguna Eibarren

Kantu Kalejira, abenduak 3

USTEKABE TXARANGA

UNTZAGAN
"Guk euskaraz"
-
19:00etan harmailetan:
IXOTU EUSKERIA dantza
**Ekarri argia etxetik!!*

ERREBALEN
"Euritan dantzan"

ANBULATORIOAN
"Itzulera"

DEPORREN
"Ikusi mendizaleak"

URKIZUN, 18:00etan
"Arratsalde honetan"

eta kitto!
euskara elkartea

Eibarren AKEBAI

Euskalgintza taldea

Gaur egingo da San Andres Bertso Jaialdia Coliseon



20:00etan zapalduko du Coliseoko oholtza aurtengo bertsolari-boskoteak: Aner Peritz, Andoni Egaña, Irune Basagoiti, Xabat Illarregi eta Aitor Etxebarriazarragak jardungo dute bertsotan Jon Mikel Mujika gai-jartzailearen eskutik. Sarrerak 18:30etatik aurrera jarriko dira salgai Coliseoko leihatilan (8 euro). Jaialdia hasi aurretik, bertso-paper lehiaketako sariak banatuko dira urtero moduan. Aurten, Oñati aldera joan da helduen mailako lehenengo saria, Urko Egaña izan baita garaile. Bigarren saria, berriz, Iñigo Legorburu hernaniarrak bereganatu du. Gaztetxoenen mailan Nile Arrizabalagak eraman du lehenengo saria eta Helene Egigurenek bigarrena.



Kaleidoskopioak egiten arratsalde ederra pasa zuten familia berbalagunek

Joan den barixakuan, Gurasoak Berbetan eta Ongietorri programetako familiek arratsalde polita pasa zuten eskulanak egiten. Arrakasta izan zuela-eta, bi taldetan eta bi ordutegitan banatu behar izan zituen familiak ...eta kitto!-k eta, ordu eta erdiko saio bitan, "Kaleidoskopio loretsu" ederrak egin zituzten etxeko txikienek helduen laguntzarekin. Urtean horrelako hainbat ekintza antolatu ohi ditu ...eta kitto!-k, Gurasoak Berbetan eta Ongietorriko familiek elkar ezagutu dezaten. Eskulan-tailerrez gain, irteerak ere egiten dituzten elkarrekin, udazkenean bata eta udaberrian bestea.



"Scrapbook" tailerrerako izen-ematea zabalik dago

Abenduaren 10erako antolatu du ...eta kitto!-k argazkiak eta oroitzapenak koaderno fisikoetan sormenez islatzeko tailerra. Bertan, collageak, pegatinak, letra mota desberdinak, kontzertuetako sarrerak, oharrak eta paper apainduak erabiliz, oroitzapenak gordetzeko album berezi bat sortuko dute. Ikastaroa 19:00etan hasiko da, ...eta kitto!-ren bulegoan, eta izen-ematea zabalik dago. Ondoan duzuen QR-aren bitartez, mezua bidaliz (elkartea@etakitto.eus) edo telefonoz deituz (943200918) eman daiteke izena.


ELKARTE BAT
MILAKA BIZIPEN
ZALETASUN BERA
Belaunaldi desberdinen arteko elkarrizketak
JAUZI BAT
BIDE BERA
Iragana, oraina eta etorkizuna elkartzen dituen saio berria
Atal berri bat hilero Hamaika telebistan
zein www.hamaika.eus/nahieran
hamaika



Coliseoko ekitaldian saria jaso zuten merkatariak.

Merkatariek euskararen alde hartutako konpromisoa saritu du ...eta kitto!-k

Herriko hainbat dendari eta tabernarik euskararen erabilera handitzeko hartutako konpromisoak aitortu eta saritu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak martitzenean, Coliseon egindako "Euskeraz Primeran!" Merkataritza Galaren II. Edizioan. Hartu eta betetako konpromisoen arabera, zilarrezko edo urrezko oroigarria jaso zuten sarituek.

Testua **MAIDER ARANBERRI SARASUA**

"Euskeraz Primeran!" Merkataritza Galaren II. Edizioa antolatu zuen martitzenean ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Bertan, herriko establezimenduek euskararen erabilera sustatzeko hartutako konpromisoen araberako oroigarria jaso zuten. Euskara Elkarteko antolatzaileen berbetan, "aldaketak emateko benetako ahalmena dutenak dendariak eta tabernariak dira, euren erabakiek (lehen hitza euskaraz egitea, denda barruko oharrak euskaraz egotea...) eragin zuzen-zuzena baitute elkarrizketak euskaraz izateko orduan. Horrela, batzuk gaitasun edo ohitura faltagatik, lehen hitza euskaraz egitera mugatzen dira. Keinu txikia eta merkea bada ere, izugarrizko eragina duen praktika da, hortik aurrera elkarrizketa euskaraz izateko aukerak handiagoak direlako".

Beste batzuek, aldiz, erronka handiagoak hartu dituzte, hala nola sare sozialetan euskara erabiltzea, erakusleiho zein establezimendu barruko idatzizko oharrak euskaraz ere izatea... "Merkatari bakoitzari euskaraz egin zezakeenaren araberako neurriak proposatu dizkiogu eta, onartzeaz gain, bete ere egin dute askok. Eta hori izan da, hain zuzen ere, ...eta kitto!-k aitortu eta saritu nahi izan diena".

Antolatzaileek argi utzi nahi izan dute ekitaldia ez zela sariak banatzeko ekitaldi hutsa izan, merkatarien lana eta herriari egiten dioten ekarpena aitortzeko ospakizuna baizik. Ekitaldia "Euskeraz Primeran" ekimenaren barruan antolatu du ...eta kitto!-k. 2014an sortutako proiektua da eta herriko establezimenduetan euskara sustatzea du helburu.

ARGAZKIAK





ONDO PASA SANANDRESETAN















Gipuzkoako Eskolarteko Kros txapelketa eta Federatua Eibarren abenduaren 13an

OZ. Eibar izango da Gipuzkoako Eskolarteko Kros Txapelketa eta Federatuaren egoitza abenduaren 13an, igandean. Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatuko du proba, Eibarko Klub Deportiboaren laguntzarekin, Arrateko zelaietan. Gainera, Bolumburu oroigarriaren 75. edizioarekin bat egingo du hitzorduak, eta IV. Euskal Kros Ligako proba ere izango da.

Lasterketak goizeko 10:30ean hasiko dira, eta adin eta kategoria desberdinetako atletak bilduko dituzte. Lehenengo, 16 urtez azpiko eta master kategorietako emakumezkoen eta gizonezkoen probak jokatuko dira. Ondoren, 18 eta 20 urtez azpikoen eta kategoria absolutu eta 23 urtez azpikoen txanda izango da. Eguerditik aurrera, infantil, alebin eta benjamin mailetako eskolarteko lasterketak egingo dira. Azken proba 13:00etan hasiko da.

Txapelketan parte hartu nahi duten atletek abenduaren 7ra arte izango dute izena emateko aukera. Federatutako kirolariek 2026ko denboraldiko Gipuzkoako lizentzia izan beharko dute, eta Gipuzkoatik kanpoko atletek ere parte hartu ahal izango dute, lehiaketatik kanpo.

Eskolarteko probetan, 2015-2016 urteetan jaiotako alebinek eta 2013-2014 urteetan jaiotako infantilek parte hartu ahal izango dute, dagozkien erregistroetan alta emanda badaude. Izen-emateak klubek egin beharko dituzte, eta epea abenduaren 7an, astelehenean, 12:00etan itxiko da. Txapelketan banakako zein taldekako sailkapenak egingo dituzte. Kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek domina jasoko dute.





Emaitza onak Eibar Igerixanentzako Neguko Probintzia Ligan

OZ. Azaroaren 21ean jokatu zen Neguko Probintzia Ligako hirugarren jardunaldia Azpeitiko Kiroldegian. Eibar Igerixaneko infantil, junior eta senior mailako igerilariek emaitza bikainak lortu zituzten.
Banakako probetan, Ane Larrañagak bi garaipen eskuratu zituen, 200 estiloetan eta 50 bizkarrean. María Rodríguezek 50 bularrean irabazi zuen, eta Paula Calvok ere lortu zuen lehen postua 100 librean, 400 librean bigarren izan ondoren. Gizonezkoetan, Jokin Oneka nagusitu zen 200 tximeletan, eta Iker Calvok 50 bizkarrean irabazi zuen.


Horrez gain, Eibar Igerixaneko igerilariek bigarren eta hirugarren postu ugari lortu zituzten hainbat probatan. Bigarren postuetan Gorka Castrillo 400 librean, Asier Gomez 200 bizkarrean, Ibrahim Benslaiman 50 bularrean, Iker Calvo 100 tximeletan Anes Abderrahamne 100 librean, Itsaso Castrillo 50 bizkarrean, Itziar Eiriz 200 bizkarrean eta Issam Mokaddem 200 tximeletan.

Hirugarren postuetan, aldiz,Xabat Limiak eta Jokin Onekak 200 estiloetan, Ane Plazaolak 100 librean, Gorka Castrillos 100 librean, Asier Gomezek 400 librean eta Anes Abderrahamnek 100 tximeletan.

Erreleboetan ere emaitza onak izan zituzten: emakumezkoen 4x50 libre taldeak hirugarren postua eskuratu zuen, eta gizonezkoena lehenengoa izan zen. 4x50 estiloetako erreleboan, emakumezkoak laugarren eta gizonezkoak hirugarren sailkatu ziren. Igerilari eibartarrek garaipen ugari eta podiumeko hainbat postu eskuratu zituzten Azpeitiko Kiroldegian, banakako probetan zein erreleboetan.

T. Etxebarria, 8
BAR BUENOS AIRES
KALAKA
Untzaga, 5

FAUSTO
kafetegia
Karmen kalea, 1
608 133 535
CAFE EIBAR
J. Etxeberria, 12
608 133 535


Aguiñaspi
Gosariak egunero
Plater konbinatuak, razioak, bokatak, hanburgesak
Urkizu, 22
943 128 086
Lanegunetan 07:00etatik Asteburuetan 08:00etatik

ZAI-ZOI
EZDOK LABADERUA
KM.0 TABERNA
BITTOR SARASKETA, 1 BEHEA


GORA GURIDI SAN ANDRES!

BARATZE
TABERNA
EIBAR
Bidebarrieta 39
URKIZUKO
PARKEAREN ONDOAN
Tel. 943 84 55 03
Gure sukaldeko PLATERAK eta momentuan egindako PINTXO BEREZIAK, jatorri-deitura ezberdinetako ARDOEZ lagunduta, espazio eta giro atseginean.


TOPA-LEKU
taberna
Pintxoak · Ogitartekoak · Pikoteoa · Catering
GORA SANANDRESAK!

casa BANAKA
.BAR.
Calbeton, 26
Ondo pasa Sanandresak!
GOZATU GUREKIN!!!

66 haurrek parte hartu dute Elosua-Irukurutzeta-Azkarate mendi-irteeran

OZ. Igandean, 66 haur eta hainbat guraso elkartu ziren Elosua-Irukurutzeta-Azkarate mendi-irteeran. Guztira, 9,5 kilometro inguruko ibilbidea egin zuten, naturaz eta udazkeneko koloreez gozatzeko.

Irteera Elosuko zalditegitik abiatu zen, eta handik basoan barrena egin zuten aurrera. Lainoak eta ostarteak tartekatu ziren goizean zehar, baina eguraldiak ateri eutsi zion eta ibiltzeko baldintza egokiak izan zituzten. Irukurutzeta mendiko tontorrera (898 metro) iristeko azken malda igo ondoren, parte-hartzaileek hamaiketakoa egin eta taldeko argazkia atera zuten.

Hurrengo irteera abenduaren 20an egingo dute, ikasturteko hirugarrena izango dena. Oraingoan, Deba-Mutriku-Saturraran ibilbidea egingo dute.





Urbat IKEk bi garaipen eta bi porrotekin bete zuen asteburua

OZ. Urbat IKEk bi garaipen eta bi porrot izan zituen asteburuko jardunaldian. Senior Gizonezkoen 2. Maila Nazionaleko taldeak 13-11 irabazi zion Olivarri, neurketa lehiatuan. Senior Gizonezkoen 1. Euskal Herriko taldeak, berriz, 9-21 galdu zuen Nautica Portugaleteren aurka. Senior Emakumezkoen Hiru Urak taldeak ere porrota jaso zuen, 6-17 Urgararen aurka.

Jubenil taldeak, aldiz, garaipen ikusgarria eskuratu zuen WP Donostiaren aurka. Aurkariak alde handia hartu zuen hirugarren laurdenean, baina Urbatek markagailua berdintzea lortu zuen. Azkenean, penaltien txandan erabaki zen partida, eta Urbatek 14-15 irabazi zuen.

Bestalde, harrobian Ayman Jebari eta Oier Bergaretxe infantil mailako jokalariak Carla Fargasek zuzendutako entrenamendu batean parte hartzeko hautatu dituzte. Fargas Espainiako Igeriketa Errege Federazioko staff teknikoko entrenatzailea da.





76 bolari Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketako azken jardunaldian

OZ. Euskal Herriko 36. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketako seigarren eta azken jardunaldia jokatu zuten azaroaren 21ean, Elgoibarko San Migel bolatokian. Guztira, 76 bolarik hartu zuten parte.

Azken jardunaldiko sailkapenean, Jabier Osoro elgoibartarra izan zen lehenengoa, zazpi txirlo botata. Bittor Astigarraga eibartarrak eta Xabier Loiola elgoibartarrak sei txirlo bota zituzten, eta bigarren eta hirugarren postuak eskuratu zituzten. Haien atzetik sailkatu ziren Gorka Etxaniz azkoitiarra, Gotzon Uranga lasturtarra eta Jon Aranzolo markinarra; seina txirlo bota zituzten.

Sailkapen orokorrean, Asier Azkarate izan da lehenengoa, 22 txirlorekin. Anartz Estebanek eta Bittor Astigarragak 21 txirlo lortu dituzte, eta bigarren eta hirugarren postuetan amaitu dute.

Beste kategorietan, Bittor Astigarraga izan da nagusien artean lehenengoa; Aitziber Olaizola emakumezkoetan; Luken Martino gazteen artean; Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea bikoteen artean; eta San Migel A taldea taldekako lehian.

Eibar Saskibaloiak 3 garaipen lortu zituen asteburuan

OZ. Garaipenen artean, Kadete Emakumezkoen taldeak 43-37 irabazi zion Ostadar Beltzari. Senior Gizonezkoen 3. Mailako U22 taldeak ere garaipena lortu zuen, C.D. Erroibide Irunen aurka 62-51 irabazita. Kadete Mutilen 2011 taldeak 64-38 menderatu zuen Broker Directo Hondarribia.

Gainerako taldeek ezin izan zuten garaipena lortu. Aipatzekoa da Senior Emakumezkoen 2.mailako taldeak 38-55 galdu zuela.

Eibar Eskubaloiko garaipen bana Ipuruan

OZ. Azaroaren 21ean, Ipurua kiroldegian jokatutako jardunaldian, Eibar Eskubaloiako lehen bi taldeek garaipen bana lortu zuten zaleen aurrean. Gizonezkoen Lehen Mailako taldeak 35-30 irabazi zion Uharteri. Sailkapeneko lehen postuan jarraitzen du. Emakumezkoen Zilarrezko Ohorezko Mailako taldeak ere garaipena eskuratu zuen, BM Loyolari 26-20 irabazita.



Euskal kulturaren aniztasuna erakutsiko du 61. Durangoko Azokak

Euskal kulturaren aberastasuna eta aniztasuna erakusteko prest dago 61. Durangoko Azoka. Abenduaren 4tik 8ra egingo da aurtengo edizioa, eta guztira 1.098 kultur nobedade eta 311 ekitaldi eskainiko ditu. Landako Gunean 174 partaide eta 286 erakusmahai bilduko dira.



Aurten argitaratutako nobedadeen artean 681 liburu, musikarekin lotutako 177 lan, 57 aldizkari eta beste 156 argitalpen izango dira, hala nola jolasak, laminak eta papertegiko produktuak. Gerediaga Elkarteak euskarazko sorkuntza sustatzeko eta erakusteko topagune gisa aurkeztu du azoka, sortzaileei eta haien lanei protagonismoa emanez.

Egitaraua azokako guneetan banatuko da. Talaian 58 aurkezpen eta mahai-inguru egingo dituzte; Ahotsenean, berriz, 62 liburu eta 43 disko aurkeztuko dituzte bost egunetan. Irudienean euskaraz ekoitzitako 47 ikus-entzunezko lan eskainiko dituzte, eta Szenatokiak antzerkia eta arte eszenikoak bilduko ditu. Saguganbaran haur eta gaztetxoentzako jarduerak izango dira, eta Kabiak teknologia berriek gizartean eta euskaran dituzten eraginak aztertuko ditu.

Azokak iluntzeko eta gaueko eskaintza ere izango du aurten. Besteak beste, Beire, Txopet, Mikosis, TOC eta Peiremans taldeek joko dute, eta abenduaren 7an Musika Berria jaialdia egingo da, Verde Prato, Silitia eta Malakias taldeekin.

Azkenik, abenduaren 4an Ikasle Goiza egingo dute, eta hilaren 5ean Gazte Eztanda ospatuko dute, gazteei zuzendutako jarduerekin. Azokak egunero 10:30etik 20:00etara zabalduko ditu ateak, azken egunean izan ezik: abenduaren 8an 18:00etan itxiko dute.



ONDO PASA SANANDRESETAN















1996an argitaratutako `Eibarko Elkarte Gastronomikoak´ publikazioaren arrastoan, ia 30 urte geroago, herriko soziedadeen egungo errealitatea jaso du euskara elkarteak.

Eibarko elkarte gastronomikoen laburmetraia kaleratu du ...eta kitto!-k

1996ko ekainean argitaratu zuen ...eta kitto! Euskara Elkarteak 'Eibarko Elkarte Gastronomikoa' publikazioa, herriko soziedadeen berri emateko. Ia hiru hamarkada geroago, elkarte horien egungo egoerari begiratu dio berriro, eta belaunaldi berriek hartutako lekukoa, emakumeen presentzia eta erabilera-ohituren bilakaera jaso ditu ikus-entzunezko lan berrian. Eibarko elkarte gastronomiko gehienak XX. mendeko 70eko hamarkadaren bueltan sortu ziren, eta 1996ko argitalpenean horietako askoren sortzaileen testigantzak, bazkideen izenak eta soziedade bakoitzaren errezetak bildu zituzten. Ordutik hona, ordea, errealitatea dezente aldatu da: belaunaldi berri batek hartu du lekukoa, eta emakumeen presentzia erabat normalizatu da elkarteetan.

Elkarte gastronomikoen kopuruak, hala ere, antzeko mailan jarraitzen du. Eibarren 60 soziedade inguru daude gaur egun; azken urteotan ateak itxi dituzten hiruzpalau elkarteen ordez, beste hainbeste sortu dira. Bazkideen kopuruari dagokionez ere, ez da aldaketa handirik izan: 2.200 lagun inguru biltzen dituzte herriko elkarteek, batez beste 36-37 bazkide soziedade bakoitzeko. Aldaketarik nabarmenena, ordea, elkarteen erabileran dago. Lokalen erabilera gutxitzen ari da, eta gaur egungo premiek eta ohiturek eragina dute soziedadeen eguneroko jardunean. Hala ere, txoko horiek herriko bizitzaren parte izaten jarraitzen dute, elkartzeko eta harremanak sortzeko gune gisa.

Elkarte gastronomikoen garrantzia ez da mahaiaren bueltako topaketetara mugatzen, Eibarko industria-historiarekin eta herriko enpresen arteko harremanekin ere lotura izan baitute. Iker Eizagirre eta Igor Etxabe ikertzaileek, Ego Ibarra batzordearen laguntzarekin, elkarte gastronomikoen eta Eibarko enpresen arteko loturak aztertzeko ikerketa abiatu zuten, 1996ko argitalpena abiapuntutzat hartuta. Orain, ...eta kitto!-k egindako ikus-entzunezko lan berriak elkarte horien gaur egungo argazkia eskaintzen du, bertako kideekin testigantzekin batera, ia 30 urteko tartean izandako aldaketak eta jarraitutasunak erakutsiz.

eta kitto!
euskara elkartea



EIBARKO



ELKARTE



GASTRONOMIKOAK

D O K U M E N T A L A

Belaunaldi berri bat herriko soziedadeetan.

YOUTUBEN IKUSGAI



Juan Antonio Palacios argazkilariak bi sari jaso ditu

S.H. Juan Antonio Palacios argazkilari eibartarrak bi sari jaso zituen aurreko barixakuan, azaroaren 20an, Irunen eta Gernikan egindako sari-banaketa ekitaldietan. Batetik, XXXVII. *Irun Hiria* Argazki Lehiaketako Ohorezko Makila jaso zuen, *Tera* izeneko argazki-bildumarekin. Bestetik, Gernikako XI. Photoka Sarian lehen saria jaso zuen, *Retrato de una sardina* argazkiarekin. Horrez gain, Espainiako Argazkilaritza Konfederazioak urrezko domina eman dio.



Herritar askok egin zuten bat Santa Zezilia serenatarekin

S.H. Santa Zezilia, musikarien zaindariaren eguna izan zen domeka (azaroak 22) eta, hori ospatzeko, asteburu osoan zehar kalejira eta emanaldi bereziak egin dituzte herriko talde ezberdinek. Urtero legez, Eibarko Musika Bandak serenata eskaini zuen zapatu gauerdian. Kalejiran, herriko kaleak kantuz bete zituzten, herritarrekin batera, eta musika eta giro alaia izan ziren protagonista. Ospakizunek domekan izan zuten jarraipena, eguerdian Coliseo antzokian Eibarko Musika Bandak Santa Zeziliaren omenez eskainitako kontzertu bereziarekin (Argazkia: Alberto Echaluce).



Badiola anaiek irabazi dute aurtengo Bakailao Txapelketa

S.H. Domekan jokatu zen Eibarko Udalak antolatutako Sanandresetako XXXII. Bakailao Txapelketa, eta Peio Garcia, Xabier Osa, Oskar Trebiño, Aitor Buendia, Josema Azpeitia eta Mireia Alonsok osatutako epaimahaiak aho batez erabaki zuen lehen saria Ramon eta Manuel Badiola Quintanilla anaiei ematea. Bigarren saria Iker Iraolagoitiak eta Haritz Riañok eraman dute, eta hirugarrena Itsasne Lezea Izagirrek eta Lorea Lezea Artamendik. Argazki bilduma www.etakitto.eus-en dago ikusgai (Argazkia: Eibarko Udala).



Zirkua eta musika uztartzen dituen ikuskizuna Coliseon

S.H. Familia osoak gozatzeko moduko ikuskizuna taularatuko dute bihar (zapatua, hilak 28), 17:00etatik aurrera, Coliseo antzokian. *Aske*, Asvin Lopezen bakarkako lehen lana da, Pia Nielsenen laguntzarekin sortutakoa. Bi artistek masta eta musika uztartzen dituzte, jolasaren bidez, bizitzaz eta eraldaketaz hitz egiten duen istorio samur, bitxi eta dibertigarri batean. Sarrerak 5 euro balio du.



Eibar BHI-ko ikasleen ikuskizuna abenduaren 2an

S.H. Eibar BHI institutuko Hezkidetza taldeak *performance* "berezi eta hunkigarria"prestatu du Emakumeen aurkako Indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren harira. Ikastetxetik adierazi digutenez, "ikasleek ilusioz eta konpromisoz sortutako lan honen bidez, isildutako ahotsei lekua eman eta guztion artean gizarte justuago eta askeago bat eraikitzeko beharra aldarrikatu nahi dute, bihotzetik bihotzera iritsiko den mezu batekin".

Emanaldia abenduaren 2an (eguaztena) izango da, 20:00etan, Coliseo antzokian. Sarrera doakoa izango da, baina gonbidapena aldez aurretik hartu beharko da, leihatilan.Eibartar guztiak gonbidatu dituzte "gazteen ahotsa entzuteko eta euren lanari babesa emateko".



Banatu ditugu Errigorako zozketako bi otarrak

S.H. Hector Bergaretxe eta Iker Azkoaga dira ...eta kitto! Euskara Elkarteak zozketatu dituen Errigorako otarren irabazleak, eta Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko produktuekin osatutako Errigorako otar bana jaso dute. Zorionak eta on egin!



Euskal kantu poteoa antolatu du Gure Eskuk biharko

S.H. Euskal kantu poteoa antolatu du Gure Eskuk bihar zapaturako. Parte hartzera animatzen direnak 12:00etan abiatuko dira Casinotik, eta herriko kaleetan barrena ibiliko dira, euskal kantutegiko abestiak elkarrekin abestuz. Antolatzaileek diotenez, "ekimenaren helburua euskarazko kantuen bidez giroa sortzea eta herritarrak elkartzea da", eta herritar guztiak bat egitera gonbidatu dituzte.

Tas Tas berriaren 18. urtemuga



S.H. Tas Tas kafe antzoki berriaren 18. urteurrena ospatuko dute bihar (zapatua, azaroak 28) eta, horretarako, kontzertua eta hainbat sorpresa antolatu dituzte. 21:00etatik aurrera, "Espainiako rockaren abestirik onenak" joko ditu zuzenean *A santo de que* taldeak. Sarrera doan izango da.

Euskal kantu saioa martitzenean



S.H. Astelehena (azaroak 30) San Andres, Eibarren jai egun handia ospatuko denez, Arrate Kultur Elkartean hamabostean behin egiten den euskal kantu saio irekirik ez dute egingo, antolatzaileek jakinarazi dutenez. Datorren astean, beraz, martitzenean izango da saioa, astelehenean izan beharrean, ohiko ordutegian, hau da, 19:00etatik 21:00etara.

ASTEROIDEIAK PROIEKTUA

Zientzia dibulgazioa euskeraz

ESTATISTIKEK ERAKUSTEN ETA EZKUTATZEN DIGUTENA

Kexa arrunt samarra izan ohi da eskolan irakasten dizkiguten gauza asko ez direla batere erabilgarriak gure bizitzarako, hezkuntza formaletik haratago. Ea Pitagorasen Teorema noiz izango zaien erabilgarri haien egunerokotasunean, diote askok. Ea zergatik den beharrezko XVIII. mendean jazotakoa ezagutzea, beste hainbestek. Iritzi berekoa ez banaiz ere, aitortu beharra dago sarritan zer baino, gauzak nola irakasten diren nahiko zalantzagarria dela.

Epidemia pedagogiko honen gailurrean (edo gutxienez tontorretik nahiko gertu) matematika topatzen dugu. Hein handi batean, gizartearen zati esanguratsu batek hauei dien fobia/errespetua/beldurra zenbakiekin izandako lehen kontaktu desatsegin batek eragina izan ohi da. Nahiz eta polinomio zein logaritmoek gure egunerokotasunean begi-bistako presentzia handiegirik ez izan, ordea, bada matematika arloko azpiesparru bat behin eta berriz azaldu ohi dena geure bizitzetan: estatistika.

Telebistan albisteak entzutean, Twitterren txio polemiko bat irakurtzean edo Youtuber baten azken bideoa ikustean, esaterako, ohikoa da ehuneko edo batezbestekoren bat topatzea. Estatu mailan prezioak %5 igo direla, planetaren batez besteko tenperatura 0.25ºC igo dela azken hamarkadan, banku partikular batek hipoteken interesak %0.25 jaitsiko dituela... Halako adierazpenek iritzi publikoa bideratzeko eta itxuratzeko gaitasuna dute. Bai pertsonek, bai enpresek, bai gobernu erakundeek halako estatistikak datuetan oinarritutako ebidentzia gisa erabiltzen dituzte erabaki "arrazionalak" hartzeko garaian. Azken batean, bizi garen munduan gertatzen dena laburbiltzeko eta ulertzen saiatzeko tresna paregabea da estatistika: egoera zein sistema konplexuei lotutako informazioa kondentsatzeko erreminta.



1_irudia: Azkenaldian, datu-zientzia eta adimen artifiziala hain modan dauden garaian, informazio kantitate erraldoiak prozesatzeko estatistika gero eta garrantzitsuago bihurtu da.

Estatistika, ordea, alde biko arma da: informazioa konprimatzeko tresna ezinhobea den bezalaxe, xehetasunetan eta zirrikituetan datzaten errealitatearen barne-konplexutasunak omititzeko aukera ematen du.

Egia-erdiak eta tranpa estatistikoak ohikoak dira gure informazio gizartean; izan ere, datu bat modu askotara aurkez daiteke hartzailearengan eragin desberdina lortzeko. Batezbestekoaren tranpa klasikoaz gain —non muturreko balioek errealitatea desitxura dezaketen—, laginketa alderdikoiak edo korrelazioaren eta kausalitatearen arteko nahaste interesatuak erabiltzen dira askotan diskurtso ideologikoak dotoretzeko. Gauzak horrela, zenbaki hauek modu zuzenean interpretatzea ezinbesteko zaigu herritar kritikoak izango bagara.

Artikulu honen helburua bikoitza da. Lehena, estatistika tranpatiak eguneroko bizitzan nola ageri daitezkeen erakustea, adibide konkretuak erakutsiz. Bigarrena, horien aurrean defendatzeko errekurtso batzuk plazaratzea, oinarrizko kontzeptu estatistiko batzuen funtzionamendua azpimarratuz.

IRUZUR ESTATISTIKOAK

Jarraian bi egoera artifizial deskribatuko ditut, iruzur estatistikoak gure intuizioaren ahulguneak baliatzeko nola erabil daitezkeen erakustarazteko.

Tomateak eguzkitan.

Demagun azokan 10 kg tomate erosi dituzula. Kalitate handikoak dira, baratzetik ekarri berriak, eta haien pisuaren %99 ura da. Azokatik bueltan, tomateak eguerdiko eguzkipean utzi dituzu ahaztuta, lagunekin berriketan geratu baitzara. Jasotzera itzuli zarenean tomateak apur bat deshidratatu direla ohartu zara, hau da, ur apur bat galdu dute. Orain, tomateen konposizioaren %98 besterik ez da ur. Hona hemen nire galdera: zenbat pisatzen dute orain tomateek?

Bada baskula gainean jartzerakoan sorpresa ederra hartuko duzu, 5 kg tomate soilik geratu zaizkizula konturatzean. Azalpena sinple samarra da. Hasiera batean, tomateen %99 ura zenean, 9.9 kg ur eta 0.1 kg mami zeneuzkan. Eguzkiak bere lana egin ondoren, uraren zati bat galdu egin da, baina tomateen zati solidoa, hau da, mamia, ez da inora joan. Beste modu batean esanda, 0.1 kg mami izaten jarraitzen duzu.

Orain, ordea, zati solido hori pisuaren %2 da, ura %98 besterik ez baita. Baina 100 gramoko pisuaren %2 bada, guztizko pisua 5 kg-koa izan behar da nahitaez! Hartu papel eta boligrafoa ondo ulertzeko.

Tomateen paradoxa honek marketinean garrantzi psikologiko handia du. Esaterako, bankuak hipotekaren interesa %0.75etik %1era igo badizu, alde txikia badirudi ere, zure maileguarengatik ordaintzen ari zaren hileroko interesa %33 hazi da. Prestatu poltsikoa!



2. Irudia: Ehuneko txikietan, aldaketa txikiek eragin handiak eduki ditzazkete.

Guztion onura, askoren kaltea.

Azken hau klasiko bat da, baina egunerokotasunean non-nahi azaltzen dena. Imajinatu unibertsitate batek kanpaina publizitarioa jarri duela martxan datorren ikasturterako ikasleak erakartzeko. Eslogan nagusia honakoa da:

"Gure unibertsitatean, klase bakoitzeko 45 ikasle besterik ez! Gertutasuna eta arreta pertsonalizatua gure lehentasuna!"

Normalean klaseko 100 ikasletik gora dauzkaten unibertsitateekin alderatuz, ez dago batere gaizki, ezta? Eslogana matematikoki zuzena izan daiteke, baina sozialki gezur galanta ere bai. Unibertsitateak honako tranpa egin dezake: demagun kurtso bakoitzean 4 derrigorrezko ikasgai eta 8 hautazko ikasgai daudela. Derrigorrezko ikasgaietan 125 pertsona daude klase bakoitzean, baina hautazko ikasgaietan ikasle kopurua 5 pertsonara mugatuta dago. batez besteko ikasle kopurua kalkulatuz gero:

$(4x125+8x5) / 12 = 45.$

Batez bestekoak ez du gezurrik esan, baina ikasleaaren eguneroko errealitatea bere klase gehienetan 125 pertsona direla da. Kasu honetan, hautazko ikasgaiek ikasgelaren batez besteko tamaina diluitu dute.

Sarritan entzuten dugu X herrialdeko batez besteko soldata 2.500 eurokoa dela. Ordea, herritar gehienak (mileuristak direnak edo hortik gertu daudenak) ez dira kopuru horretan islatuta sentitzen, zuzendari nagusien soldata astronomikoek batezbestekoa gora bultzatzen dutelako. Esaterako, Hego Euskal Herrian biztanleriaren %60ak batez besteko soldata baino gutxiago irabazten du. (*jarraitzen du*)

OSORIK IRAKURTZEKO: etakitto.eus

ZINEA **COLISEO**



"Muguruza 40 tour"
DOKUMENTALA

2026/Euskal Herria/103'
Zuzendaria: Ander Merino, Fermín Muguruza
Aktoreak: Fermin Muguruza, Oihana Barrena
Musikari buruzko dokumentala. Kontzertuak

1 ARETOA
- **28an:** 22:30
- **29an:** 20:00
- **30ean:** 19:30



"Los miserables"
DRAMA

2026/Frantzia/178'
Zuzendaria: Fred Cavayé
Aktoreak: Vincent Lindon, Tahar Rahim, Camille Cottin
Historikoa. Frantziako Iraultza

1 ARETOA
- **28an:** 19:00

2 ARETOA
- **29an:** 16:30, 20:00
- **30ean:** 19:30



"Los juegos del hambre. Amanecer en la cosecha"
ZIENTZIA-FIKZIOA. ABENTURAK

2026/AEB/158'
Zuzendaria: Francis Lawrence
Aktoreak: Joseph Zada, Mckenna Grace, Ralph Fiennes
Distopia. Prekuela.

2 ARETOA
- **28an:** 16:00, 19:15, 22:30
- **29an:** 20:00
- **30ean:** 19:30

ANTZOKIA
- **28an:** 16:30, 20:00
- **29an:** 19:30



"Ratones al ataque. Operación Navidad"
ANIMAZIOA. KOMEDIA

2026/Norbegia/80'
Zuzendaria: Henrik Martin Dahlsbakken
Familia. Karraskariak. Gabonak

1 ARETOA
- **28an:** 17:00
- **29an:** 17:00





www.etakitto.eus
zorion-agurrak

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu aldizkarian eta gure webgunean. Informazioa guri helarazteko bi aukera daude: FORMULARIO bat betetzea ETAKITTO.EUS webgunean (QR-aren bidez sartu zaitezkete), edo presentzialki gure bulegoan. Argazki arrunta: 4 euro. Bikoitza; 8 euro (%20ko deskontua elkarteko bazkideentzat)



Zorionak **UNAX**! astelehenian 9 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Patxo haundi bat etxekuen eta batez be, Aiurren partez.



Zorionak **LORE!** martitzenian 10 urte bete zenduazen eta. Musu potolo bat, printzesa, etxekoen eta, batez be, Oierren partez



Zorionak **MIKEL**! 2 urte erraldoi egin dittuzu! Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **ANE**! San Andres egunian 10 urte beteko dozuz eta. Ondo ospatu zure eguna. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, **KONTXA**! 102 urte beteko dittuzu eta! Egun politta pasa! Besarkada eta musu haundi bat Mirtaren partez.



Zorionak **MARKEL**, mutil haundi! Zapatuan zure egunaz gozatu! Asko maite zaittugu!



Zorionak **AIERT**! Bixar 3 urtetxo beteko dozuz eta. Besarkada eta musu potolo erraldoia famelixa guztiaren partez. Izugarri maite zaittugu!

Xabi Zubizarreta Muguruza

2026/11/19

"EZ ZAITUGU INOZ AHAZTUKO"

– ZURE LAGUNAK –



Nicolas Zurutuza Otxandorena

6. URTEURRENA
2020/11/29

"Gure bihotzean betirako eramango zaitugu"

- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak

943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA
2.1. Salgai

3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko

4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Gizonezko langile eta arduratsuak Eibarren logela alokatuko luke, epe luzerako egonaldirako. 722 565 179 (Vladi).
- Neska bat logela bila dabil alokairuan hartzeko Eibarren edo Elgoibarren. 640540638.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Egigurentarrenen (Abontza) garajea alokagai. Hilean 110 euro. 685765923.

4. LAN BILA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, nagusiak edota umeak zaintzen, etxeko lanetan, eta abar. 604986450.
- Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, nagusiak edota umeak zaintzen, etxeko lanetan, eta abar. 631831354.
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, etxeko garbiketa lanak egiteko, atariak eta bulegoak garbitzeko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. Segurtasun-zaintzaile titulua eta esperientzia ditu. 643342975.
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Farmazian lizentziaduna da.632642320.
- Neska eskaintzen da garbiketa-lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 605339092.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako eta zerbitzari bezala lan egiteko. 612540008.
- Emakumea eskaintzen da erizaintzako laguntzaile lanetan aritzeko. Lanaldi erdian. 688668930.
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, pegorak garbitzeko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. 652020464.
- Emakumea eskaintzen da etxeak, pegorak eta ofizinak garbitzeko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. 642712610.
- Emakumea eskaintzen da adinekoak orduka zaintzeko, garbiketa-lanak egiteko eta sukaldeko laguntzaile aritzeko. Esperientzia. Arropak diseinatzen eta josten ditut. 688740201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, astean zehar, zein asteburuetan. Baita oporretan edota ospitaletan ere. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka, etxeetan eta ospitaletan, baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaitzeko, interna edo orduka. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 680526228.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 631483249.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako, eta dendari edo zerbitzari bezala lan egiteko. Esperientziarekin. 601500665.
- Emakumea eskaintzen da goiz eta arratsaldez umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 604120104.
- Gizona eskaintzen da eraikuntzako peoi bezala, ostalaritzan sukaldeko laguntzaile bezala, garbiketa lanetarako edota autoen garbiketarako. 642986250.

4.2. Langile bila

- Eskulan dendak saltzailea behar du Bilbon, Gabon azokan lan egiteko. Telf 943204000.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Marrazketa eta pintura klaseak ematen dira, haur zein helduentzat. Goizez eta arratsaldez. 646238458.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Gaztetxoentzako logela osoa salgai: ohea, izkinako armairua, ikasteko mahaia eta gehiago. Oso egoera onean.

vinos
Solera Eibarresa
1939
Estrella Galicia

Gabonetako Topa onena, gurekin

Gure ardo, likore eta garagardoekin,
zure ospakizunak paregabeak izango dira.

%3ko deskontua

gure web guztian

Kupoia: gabonak-2026-vse

Eskaneatu QR kodea edo idatzi kupoia!

Egin gutxieneko eskaera eta Opari bat izango duzu zain.





Zaporea Oparitu. Gabon Zoriontsuak!

1939tik, zure konfiantzako edari banatzailea

Ibur Erreka Poligonoa z/g - Eibar

Tel. 943201353 - 943206614 · Mobila: 606984166

Astelehenetik Ostiralera: 8:00etatik - 18:00etara

www.vinosconsolera.com · info@vinosconsolera.com

EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

SAN ANDRES EGUNEAN

IRRIBARREAK KALERA!



San Agustin Kalea, 4 behea ezkerra (Eibar) 943 537 076 · 688 884 808

eibarclinicadental.com

R.P.S. 79/25 MAITANE G. IÑIGUEZ . ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA